

}

CULTURA

Más empleo que el sector naval

La cultura gallega acude de invitada a Durango, reivindicándose como sector industrial y mostrando la capacidad de innovación de sus creadores

03.12.11 - 03:11 -

:: NEREA AZURMENDI |

17.500

empleos genera la industria cultural gallega, y factura más de 1.500 millones de euros al año, lo que equivale al 2% del PIB de Galicia.

Mañana, coincidiendo con la apertura de la gran feria de la cultura vasca de Durango -que protagonizará Galicia, la invitada de honor de esta 46 edición-, en el Pazo da Cultura de Pontevedra cerrará sus puertas Culturgal, la gran feria de la cultura gallega. No es casual que Culturgal sea la Feira das Industrias Culturais, denominación que supera ampliamente el espacio delimitado por el libro y el disco que dominan en cartel de identidad de la Azoka de Durango, en fase de reflexión y transformación en lo que respecta a sus campos de interés.

Tampoco es casual que la potente presencia gallega en Durango llegue precisamente de la mano del mismo Culturgal y de Agadic, la Axencia Galega das Industrias Culturais, plataforma institucional de vocación transversal integrada en la consejería de Cultura de la Xunta. Porque, pese a que reconozcan que todavía están dando los primeros pasos, por lo menos formalmente Galicia ha avanzado más que Euskadi en la consideración del sector cultural como sector productivo, como industria.

Sergio Lago, director de Culturgal, recuerda que «en los últimos años se han consolidado varias asociaciones sectoriales con un trabajo muy profesional, y una de las reclamaciones era, además de tener datos sobre el sector de la cultura, ser considerados como industrias culturales e ir abandonando esa idea subsidiaria que se tiene de la cultura». Los primeros datos -17.500 empleos, 1.500 millones de facturación, 2% del PIB-, permitieron comprobar, por ejemplo, que las industrias culturales tienen en la actualidad tantos trabajadores o más que sectores tan emblemáticos, y tan apoyados por las instituciones, como la construcción naval, la pesca o el automóvil. Y, pese a ello, «nunca han tenido la misma consideración», subraya Lago, reconociendo que, pese a la existencia de subsectores potentes como el libro y las artes gráficas, en general el sector de la cultura está muy atomizado.

Comparte esa visión Juan Carlos Fernández Fasero, director de Agadic, que procede del sector y en la actualidad considera su trabajo en la administración autonómica gallega como «una tarea de apostolado, porque cuesta que entiendan, aunque ya lo están empezando a hacer, que la cultura es también un negocio que genera riqueza y del que la gente come y vive». Un sector que por sus características necesita, y hasta ahora no tenía, programas de formación específicos o líneas de

ayuda y financiación que contemplen las especificidades de unas industrias que no siempre se asemejan a las que se consideran convencionales y, en consecuencia, «normales».

Pese a esa singularidad que no siempre encaja en la norma, la industria cultural es sin embargo, y así lo subraya Fernández Fasero, «una de las que mejor está capeando la crisis. Hay destrucción de empleo, claro, pero es mínima comparando con otros sectores». Datos externos avalan también la relativa buena forma del sector cultural gallego. En 2010, por ejemplo, el Instituto Nacional de Estadística constató un desplome de caso el 30% en la producción editorial española. En Galicia también cayó, pero la mitad, un 15%.

Lago y Fernández Fasero también están de acuerdo en que para una comunidad de 2.800.000 habitantes la llave del futuro está en el exterior. En el caso de Galicia, además, la lengua propia no solo no se entiende como un límite, sino que se presenta como una gran oportunidad. En Galicia, según datos del Instituto Galego de Estatística correspondientes a 2008, el 56% de los habitantes de la comunidad hablan más el gallego que el castellano, aunque el porcentaje, baja al 30% cuando refleja el número de gallegos que siempre hablan en gallego y se reduce aun más cuando los criterios de corte son la lectura y la escritura.

En cualquier caso, más allá de sus fronteras los gallegos tienen eso que llaman la lusofonía, más de 240 millones de personas que, con todas las peculiaridades que hay que tener en cuenta y todos los ajustes que hay que hacer, comparten universo lingüístico. Las expectativas de la industria cultural gallega con respecto a la internacionalización son fundadamente positivas.

Las piezas más importantes

La sintonía entre Lago y Fernández Fasero sigue siendo total a la hora de reconocer que la mejor estrategia y todos los medios puestos a su servicio sirven de poco si no funcionan los dos extremos de la cadena, las piezas más importantes de la misma: los creadores y el público.

Estos días, Culturgal está poniendo a disposición del público, tal como lo hará a partir de mañana Durango, el grueso de la producción cultural gallega. Más de 120 entidades presentarán sus novedades y también serán muchos los autores presentes en la feria. Aprovechando la coincidencia, un rápido test de conocimiento de cultura gallega contemporánea. Estos días visitan Culturgal los escritores Antón Piñeiro, Federico Coche, Xulia Alonso, Manuel Rivas, Domingo Villar y Fran Alonso, entre otros. En lo que respecta a la música, por el Patio de Culturgal habrán pasado al final de esta edición, entre otros, Vai, M. Carballo Trío, Pentalfa, Das Kapital, Combo Dinamo, Pedrito Diablo y Los Cadáveres, Assembly Point, Riobó y Patricia Moon. La pregunta es la siguiente, ¿a cuántos conoce?

La respuesta, salvo conocimiento superior a la media de la actualidad cultural gallega, es fácil de imaginar, e incide en uno de los aspectos que destaca Juan Carlos Fernández Fasero: la importancia que tienen para la difusión de la cultura gallega algunos creadores que han dado el salto a mercados más amplios y, sin embargo, siguen absolutamente comprometidos con su lengua y su cultura. Por ejemplo, un nombre en el que seguramente habrá reparado, el escritor Manuel Rivas. U otro que tal vez recordará, aunque no aparece en la lista, Suso de Toro, que hace unos meses se despidió de la escritura profesional a través de su blog. La literatura gallega, sin embargo, es una realidad mucho más extensa y más joven que iniciativas como Pulp Books, que edita en castellano las obras más recientes y de mayor éxito de autores gallegos de la última hornada, están ayudando a difundir.

Otro tanto puede decirse de la música. Hay muchas posibilidades de que la primera respuesta a la pregunta ¿a quiénes conoce? sea el grupo folk Luar na Lubre, oficialmente nombrados embajadores culturales de Galicia. Los más veteranos recordarán también a los incombustibles Milladoiro o la década que, hace ya mucho tiempo, protagonizaron Os Resentidos de Antón Reixa, cuya conferencia inaugura mañana al mediodía la Azoka. O a dos ejemplos de cómo la tradición puede ser pura vanguardia, como los gaiteros Cristina Pato y Carlos Núñez. Pero, obviamente, hay muchísimo más. Y mucho de lo que a la mayoría nos queda por conocer de una cultura que comparte muchas cosas con la vasca estará al alcance de todos en Durango.

, ,

Renovación. La gaitera Cristina Pato, una de las figuras más inquietas del panorama musical gallego.

EGITARAUA

Eskaintza zabalak ekarriko dute galiziarrek

03.12.11 - 03:14 -
N. A. | DONOSTIA.

Berariazko liburuxka eta guzti du aurtan Durango Azokako ohorezko gonbidatuak: hamasei orrialdeko esku programa, euskaraz eta galegoz idatzia. Horrenbeste merezi du, alajaina, Kulturgal elkartearen eskutik eta Agadic Xuntako erakundearen laguntzaz, galegoek Durangora dakarten eskaintza zabalak. «Gerediagak egindako gonbiteari erantzunez, egungo kultura galegoaren lagin anitza eramango dugu» diote, baita honakoa ere: «Joan-etorriko elkatrakerako bidea zabaldu nahi dugu: norbere hizkuntzan, ideien ibilbide berri bat eta euskal kulturarentzat zein galegoarentzat aukera berriak.

Inaugurazio ekitaldia

'Galizia denak gara'. Aurtan ez du gai nagusirik Durangoko Azokak, azoka gairik gabe uztea gomendatu duen «norabide aldaketari buruzko gogoeta» bera ez bada. Hartara, gonbidatuen esku utzi da inaugurazio ekitaldia. Zehatz esateko, Anton Reixaren esku, Euskal Herriko eta Galiziako ordezkari instituzionalen agerpen ofizialeren ondotik bera mintzatuko baita eguerdiko 12:00etan Azokako areto nagusian. Hitzaldiaren izenburua, 'Galizia denak gara'. Reixa (Vigo, 1957) Galiziako kultur eragile ezagunenetakoa da, etxean zein kanpoan, sormen handikoa eta lan eremu zabalekoa. Musikaren alorrean bide luzea egindakoa (Siniestro Total, Os Resentidos, Kaki Arkarazorekin batera sortu zuen Nación Reixa...) ikus-entzunezkoan murgilduta dabil azkenaldian, zuzendari bezala zein ekoizle lanetan, Filmanova ekoizpen etxeko buru delarik.

Gogoeta partekatuak

Berriketaldiak eta mahaingurua. Durangoko Azokak eskaintzen duen topagunea gogoetarako ere baliatuko da, literatura ardatz hartuta betiere. Bihar, 13:00etan, aretoan, 'Galegoz eta euskaraz, Galizia eta Euskal Herriaz?' gaiari buruz arituko dira berriketan Dario Xohan Cabana eta Pako Aristi idazleak, Xosé Estévez, Euskal Herriaren bizi den irakasle eta idazle galiziarra, zirikatzaile dutelarik. Hilaren 7an, 12:30etan aretoan, Estévezek berak hartuko du parte Asociación Escritores en Lingua Galegaren izenean 'Idazlanak Galeuscan: iragana eta etorkizuna' berriketaldian. Galeuscaren 28 urteko historia eta etorkizuneko erronkei buruzko saioan Fito Rodríguezek ordezkatzuko ditu euskal idazleak. Egun berean, San Agustinen, 18:00etan, Artur Trillo, Talía Teatro taldeko kideak euskal antzerkigile batekin hitz egingo du galegozko eta euskarazko arte eszenikoei buruz 'Hizkuntza gutxiak eta antzerkigintza' mahainguruan.

Haurrentzako proposamenak

Tintiman Durango eta beste. Caixiña de Mistos: Un misterio para Tintimán en Durango. Izan ezazue izenburua gogoan, hilaren 6an eta 7an sei aldiz entzungo baita Haur Literatura Aretoan. Caixiña de Mistos, pospolo-kaxatxoa, 2009 urteaz geroztik karabana batean gora eta behera dabilen zinema ibiltaria da, Mr Misto films konpainiaren ekimena. Tintimán, berriz, Bilbon jaiotako Santiago Jaureguizar kazetari eta idazleak sortutako pertsonaia da. Orain arte, Konpostelako abenturak zituen ezagunenak Tintimanén. Aurrerantzean, agian, Durangokoak izango dira... Beste bi proposamen ere badaude haurrei zuzenduak, Haur Literatura Aretoan biak: asteartean, 17:00etan,

Galix eta Galtzagorri elkarteek idazle galego eta euskaldunak bilduko dituzte kontaketa saioan: Concha Blanco, Perre Tobaruela eta Leticia Costas batetik eta Pako Aristi, Castillo Suarez eta Felipe Juaristi bestetik. Asteazkenean, berriz, 17:30ean 'Zoo Zoroa' ('ZooLoco' galegoz) joko multimedia aurkeztuko dute.

Soinua eta musika

Agur harmoniatsua. Poesiak bere lekua izango duen bezala -bihar, aretoan, 18:30etan, galegora idatzitako euren poemen errezitaldia eskainiko dute Harkaitz Canok, Leire Bilbaok eta Urtzi Urrutikoetxeak-, musikak ere izango du merezi duena. Soinuak hartuko dio aurrera hala ere musikari, gizartearen memoria akustikoa berreskuratzea helburu duen 'Soinuaren garrantzia' esperientzia 16:00etan aurkeztuko baita areto nagusian. Egun berean, Plateruenan 20:00etan, Azokaren amaiera jaia 'Acrobatak' ikuskizunaren eskutik helduko da. Mestizaia musikalean oinarritutako lana Ugia Pedreirak, Fred Martinsek eta Mikel Urdangarinek sortu dute. Oinarrian Ugia Pedreirak eta Fred Martinesek aurten bertan Rio Janeiron grabatutako 'Acrobata' diskoa dago. Biek ere herri musika dute tresna nagusi, eta Durangoko emanaldirako Mikel Urdangarin euskal musikaria batu zaie.

Azoka Durango, 5-12-2011

Pako Aristi, Xose Estevez eta Dario Xohan Cabana

Galegoz eta euskaraz, Galizia eta Euskal Herriaz barriketaldia

Azoka Durango, 5-12-2011

Pako Aristi, Xose Estevez eta Dario Xohan Cabana

Galegoz eta euskaraz, Galizia eta Euskal Herriaz barriketaldia

Anboto, durango, 5-12-2011

■

Bilatu

durangoko azoka

"Borondate politikoa falta da galegoa berreskuratzeko"

Durango - 2011ko abenduaren 05a, 10:32



'Galegoz eta euskaraz, Galizia eta Euskal Herriaz...' berriketaldia hasiko da, gaur, 13:00ean, Durangoko Azokako Aretoan. Dario Xohan Cabana, Pako Aristi eta Xosé Estevez idazleek parte hartuko dute. Azken horrekin berriketaldia izan du Anbotok. Hango eta hemengo literaturari buruzko mahai ingurua gidatuko berak.

Zelakoa da literatura galegoaren egoera?

Oso osasuntsu dago; idazle kantitatea eta kalitatea inoiz baino handiagoa da. Idazleen elkartean 500 idazle baino gehiago daude, eta elkartetik kanpokoak ere hor daude. Galegoaren erabilera, baina, behera doa. 1980ko hamarkadan biztanleen % 82k berba egiten bazuen, orain % 40 inguruk egiten du. Hirietan galdu da gehienbat. Diglosi egoera argi batean gaude; administrazioan, komunikabideetan, elizan... ez da galegoa erabiltzen. Ez dago galego hutsezko egunkaririk. Galicia Hoxe zegoen lehenago, baina zarratu egin dute.

Administrazioaren papera aipatu duzu.

Gaur egungo Xuntak politika linguizida darama; galegozko komunikabideei eta hizkuntza

normalizaziorako elkarteei dirulaguntzak kendu dizkie. Normalizazio politikek ez dute funtzionatu. Bipartitoak hezkuntzan elebitasun formula ipini gura izan zuen, baina elkarte batzuk oso kontra agertu ziren. Gaztelera alboratu gura zela esaten zuten, eta galegoaren kontrako giroa sortu zen. Hori oso ondo etorri zaio oraingo Xuntari; dekretuen bitartez galegoaren kontrako politikak egin dituzte.

Argi izpirik ikusten duzu?

Egoera aldatzeko gobernua aldatu beharko litzateke, eta gaitz ikusten dut hori. Hezkuntzan eta osasungintzan murrizketa handiak egin ditu Xuntak, eta protesta ugari egon dira, baina hala eta guztiz ere PPren aldeko boto kopurua hazi egin da. Epe motzean ez dut konponbiderik ikusten, borondate politiko kontua delako hau.

Kultura arloko mugimenduak zeresana edukiko du.

Kultura eta hezkuntza arloko mugimenduak ez du jende asko batzen; elitista da. Banaketa sozial argia dago hizkuntzari dagokionez: prestigioa duen eliteak gaztelera egiten du; galegoz, arlo baxuenak eta kultura arloko eliteak. Kontzientziazio handia eduki ezean, jendeak ez dauka galegoz berba egiteko premiarik eta hizkuntzarekiko sentimendu hori. Deigarria da kalean heldu bi galegoz berba egiten ikustea, eta ume bat gerturatzean hari gaztelera egitea. Katalunian eta Euskal Herrian dagoen zerbait falta da; nazio harrotasuna falta da.

Katalunia, Galizia eta Euskal Herriko idazleak Galeusca federazioan batzendirira. Zelan baloratzen duzu elkarlan hori?

Topaketa interesgarriak izaten dira elkar ezagutzeko. Batez ere, idazle galegoek eta euskaldunek antzeko ardurak daukagu; kultur ekoizpenak bultzatzea eta kontzientziazioa. Kataluniarrek, egoera normalizatuagoa daukatelako agian, ekonomia arloko kontu batzuetan sakontzen dute gehiago.

Bata bestearengandik zer ikasi dezakegu?

Galiziak euskararen errekupeazio arloan egin den lanetik ikasi beharra daukala uste dut. Gertatzen dena da ez dagoela botere ekonomikorik, Xuntak ez daukalako borondate politikorik. Galiziak Euskal Herriari, aldiz, ekarpen garrantzitsua eman diezaioke haur eta gazte literaturaran. Dagoeneko liburu ugari itzuli dira galegotik euskarara; arlo horretako galiziar produkzioa oso interesgarria da.

DEIA, 5-12-2011

durangoko azoka **euskal kulturaren hiriburua**

"Denok gara galziarrak!"

Gogotsu hasitako 46. Durangoko Azokan, Galizia da ohorezko gonbidatua

Galiziarren ordezkari gisa, Anton Reixak eman zuen inaugurazio-hitzaldia

A. santana - Lunes, 5 de Diciembre de 2011 - Actualizado a las 05:41h

Edonori gerta dakiok galiziarra izatea. Edo euskalduna. Hala baieztatu zuen atzo Anton Reixak (Vigo, 1957), zeinak Durangoko Azokari hasiera eman zion ironiaz eta umore gordinaz jositako hitzaldiarekin. Idazle, musikari eta Filmanovako produktore dena, aurkezpen-ekitaldiko protagonista izan zen atzo, Galiziaren izenean. Izan ere, Durangoko Azokaren 46. edizio honetan, Galizia da *ohorezko gonbidatua*, eta Gerediaga Elkartek Reixa hautatu zuen bere jaioterriko ordezkari gisa. "Ohore bat da niretzat topagune kultural eta sendo honetan egotea, nire herrialdea ordezkatzuz", azaldu zuen bere berbaldia aurkeztu baino minutu batzuk lehenago.

Bere aurretik mintzatu ziren Nerea Mujika, Gerediaga Elkarteko presidentea; Aitziber Irigoras, Durangoko alkatesa; Josune Ariztondo, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura diputatua; Blanca Urgell, Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua eta Juan Carlos Fernandez Fasero, Agadic Axencia Galega das Industrias Culturais-eko arduraduna. Jendez gainezka zegoen Elkartegiko areto nagusian, Durangoko alkatesak azokaren ibilbidea gogorarazi zuen. "Xume jaio zen, baina urteak joan eta urteak etorri, Landako gunera aldatu zen, non milaka lagun aterpe, topaleku eta gotorleku atsegin bihurtu den", adierazi zuen. Bere ustez, Durangoko Azoka euskara eta euskal kulturaren "paralelismo izugarria" ere bada. "Elizpe zahar batetik punta-puntako azpiegiturara igaro baita", euskalgintzarekin gertatu den lez, antza.

Josune Ariztondok, bestalde, euskal kulturari eusteko "gogoa, sendotasuna eta adorea" goraiatu zituen, baita hurrengo gogoratu ere: "Euskaltzale barik, azoka hau ezinezkoa litzateke". Azoka bat baino, "gure mugetatik haratago zabaldu den topagune kulturaltzat" du Durangokoa.

Ildo horretatik, euskaltzale, sor-tzaile, editore eta produktoreen lana eta esfortzua eskertu zituen. "Aldapa gorako sasoietan, elkarlana ezinbestekoa da", gaineratu zuen Kultura diputatuak.

Bere aldetik, Blanca Urgellek ere egin zion aipu lankidetzari, ñabardura bat egin bazuen ere: "Azoka ez da euskal kulturaren panazea, ez baita urte osoan zehar ikusten denaren isla. Hala ere, ezin diogu muzin egin bere balio eta erakargarritasunari", azaldu zuen.

Kulturan inbertitzea Galiziaren beste ordezkariari dagokionez, hots, Agadic-eko Juan Carlos Fernandez, Culturagal azokaz aritu zen. Ekimen hau Durangokoaren auzokide da, eta atzo bukaera eman zion bere laugarren edizioari. Horrela, Pontevedran hilaren 2an hasi eta atzo bukatu zen kultura galziarraren azokak Durangokoari pasa zion lekukoa. "Pare bat urte barru Durangoko azokaren sendotasunera helduko gara", ironiaz mintzatu zen Fernandez. Serioski, Kulturan gehiago inbertitzearen garrantziaz berba egin zuen. "Galizian laugarren emigrazio sasoi bat ari gara bizitzen: Galiziatik erbestera alde egiten duen talentuarena, alegia", argitu zuen.

Erakunde-jardunaz harat, Anton Reixaren txanda heldutakoan, jendaurrea barrez lehertua hasia zen. "Galiziar guztiek nortasun bikoi-tza daukagu, baina beti erabiltzen dugu berbera", izan zen bere ateraldietako bat. Hona hemen beste adibide bat: "Galiziarra izatea kasualitate ideologiko bat da. Edonori gerta dakiok galiziarra izatea. Gauza bera gertatzen zaizue zuei: ez da zuen errua euskaldunak izatea", nabarmendu zuen.

Edozelan ere, umore eta ironia kutsuez gain, kritika ere antzeman zitekeen bere hitzaldian, *Denok gara galziarrak* izenburupean. "Ez dugu inor indarrez hartzen, gure armada bakarra baita gure hizkuntzaz eta kulturaz osatutakoa", adierazi zuen. "Itsasoko, lurreko nahiz metaleko langilez beteko tribu bat gara", esan zuen galiziarrei buruz. "Eta ez dugu behar ordezkari Nazio Batuetan, ezta dekoratuko astronautarik ere".

Kulturaren egoerari dagokionez, garai "latzak" direla aitortu zuen arren, Agadic-eko

zuzendariarekin bat egin zuen, bateraguneak sustatzeko deia eginez. "Gure lurraldetako lehengaiak jagon egin behar dugu, hots, gure faktoria kulturalak", zehaztu zuen. Horretarako badu irtenbidea: "Ironia da kultura aliantzarik hoberena", ondorioztatu zuen.

GALIZIARRAK AZOKAN

• Gaur

– Galegoz eta euskaraz, Galizia eta Euskal Herriaz? Aretoa, 13:0etan. Dario Xohan Cabana idazle galegoak eta Pako Aristi euskaldunak idazteaz eta hizkun-tza bietan literaturak bizi duen egoeraz solasaldia konpartituko dute. Euskal Herrian bizi den Xose Estevez idazle galiziarra izango dute zirikatzaile.

• Bihar

– Gálix e Galtzagorri. Haur Literatura Aretoa, 17:0etan. Galix eta Galtzagorri ume eta gazteen artean galegoz eta euskaraz kultura sustatzea helburu duten bi elkarte dira, eta biek ere literatura dute lan tresna nagusi. – Tailerrak: Caixiña de Mistos. Haur Literatura Aretoa (11:0, 13:0, 16:0 eta 19:0).

• Abenduak 7

– Hizkuntza gutxituak eta antzerkigintza. Szenatokia-San Agustin Kultur Gunea, 18:0etan. – Tailerrak: Caixiña de Mistos. Haur Literatura Aretoa (11:0 eta 16:0).

– Idazleak Galeuscan: iragana eta etorkizuna. Aretoa, 12:30. – ZooLoco ou Zoo Zoroa joko multimedia. Haur Literatura Aretoa, 17:30ean.

• Abenduak 8

- Irudienea. Galiziako ikus-entzunezkoak (egun osoan zehar). –Musiklip galegoak, 11:0. – Laburmetraiak, 12:0-18:30. – Dokumentala. Digna rabia, 13:30. – Aretoa. Soinuaren garrantzia, 16:0. -Plateruena. Akrobatak, 20:00.

DIARIO VASCO, 6-12-2011

DURANGOKO EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKA

Zaila da Durango guztia besarkatzen

Bi gune estreinatu ziren atzo, Haur Literaturaren Aretoa eta Kabi@ delakoa. Xohán Cavanak eta Pako Aristik Galiziako eta hemengo literaturak konparatu zituzten mahai-inguruan

06.12.11 - 02:26 -

FELIX IBARGUTXI | DURANG0.

Xosé Estevez moderatzaileak atzo esana: 153 titulu daude galegotik euskarara ekarrita «Hil behar izan nuen maite nindutela jakiteko». Pamiésen esaldi hau azpimarratu du Gerardo Markuletak

Zaila da Durangoko Azoka guztia besarkatzen. Guneak ugaritu egin dira eta, denei bisita egin nahi izanez gero, denbora asko beharko du bisitariak. Kontuan izan behar da gune batzuk Landakotik aparte daudela, gainera. Haur Literaturaren Txokoa gertu dago, Elkartegian, baina Irudienea urrutixeago, San Agustin kulturgunean.

Atzo goizean eskolome asko ibili ziren Landakogune barruan atzera eta aurrera, taldeka, batzuk lanean (horretarako, han eta hemen galderak eginez), beste batzuk denborapasan. Arratsaldez, bisitari gehienak beste era batekoak izan ziren, helduak edota familiak. Ez zen sekula jende-pilaketa handirik gertatu, baina soilgune handirik ere ez.

Kabi@-ren inaugurazioa. Goizeko 11etan, teknologia berrietako emai-tzak bilduko dituen Kabi@ gune berria estreinatu zen. Aktore baten estutik etorri zen estreinaldia: Ander Lipus. Ipuin bat inprobisatzeko eskatu zioten, eta berak, oinarri moduan, Joseba Sarrionandiaren bat hartu zuen. «Ez nuen 'Txano Gorritxo' edo 'Hiru txerri txoak' hartu nahi, eta Sarrionandiaren 'Estazioko begiradak' aukeratu nuen», esan zuen Markinako aktoreak. Eta bazen tartean teknologia berririk ere: aktoreak, poltsikoko telefono bidez ailegatzen ziren mezu batzuei eran-tzunez joan zen kontaketa osatzen. Beste bi nortasunen barruan mozorrotu zen Lipus: Juan Junda eta Euxebio Egaña. «Nahiago dut beste baten ahotsa hartu, neure ahotsetik jardun baino. Errazagoa da», esan zuen aktoreak. Halako batean, guardia zibilen mezua iritsi zen. Eta Juan Jundak erantzun: «No maltratéis a la gente euskaldun». Orduan guardia zibilak: «¿Usted no sabe que aquí las preguntas las hacemos nosotros?».

Galizia-Euskal Herria. Galiziakoa da aurtengo kultura gonbidatua, eta atzo bi idazlek jardun zuten bi literaturen arteko harremanez: Pako Aristik eta Darío Xohán Cavanak. Biak ala biak, poesia eta narratiba landutako gizonak. Galiziar idazleak galegozko literaturaren erreposoa egin zuen. 1860.eko urteari erreparatu zion: «1860tik aurrera, eta zehazkiago esateko behin 1861eko A Coruña Lore Jokoak ezkerre, esan daiteke kontzienteki hasi zela galegozko literatura nazionala eraikitzen. Eta 1864an Rosalía de Castrok 'Cantares galegos' argitaratu zuen, obra benetan aparta. Ez Rosalíak ez garaiko beste literaturgileek ezagutzen zuten Erdi Aroko trobadoreen lana. Literatura bat asmatzen ari ziren».

Darío Xohán Cavanaren ustez, Xosé Luís Méndez Ferrín (Ourense, 1938) da inoizko galiziar idazlerik onena. «1976an, galiziar poesia akituta zirudien garai batean, 'Con pólvora e magnolias' liburua plazaratu zuen, denok aztoratu gintuena. 'O fin dun canto' ere zoragarria da. Eta haren 'Bretaña, esmeraldina' da, seguru asko, inoiz galegoz egin den nobelarik handiena».

Idazleak kezka handiz ikusten du galegoaren bilakaera: «Galizian, Euskal Herrian ez bezala, hiztunak galtzen ari gara. Askok gara hiztunak, bi milioi beharbada, baina gero eta gutxiago». Hitzaldiaren bukaera aldera, honela mintzatu zen: «Oinarrizko kamarada-sentipena dago, gauza denen gaintik, idazlearen artean. Laguntasun sentipena dago, adibidez, Xosé Fernández Ferreiro (laurogei bat urte izango ditu) eta hogeita bost bat dituen Oriana Méndezen artean. Desberdin idazten dugu, beharbada politikaz oso desberdin pentsatzen dugu, baina jabetzen gara, minez jabetu ere, heriotz mehatxupean bizi den hizkuntza batean idazten ari garela. Zuen eta gure Gabriel Arestirekin batera badakigu esaten: 'Nire aitaren etxea defendituko dut'».

Pako Aristik, berriz, soziolinguistikaz blaitutako hitzaldia egin zuen. «Sekula ez dago hizkuntzen arteko bizikidetzarik. Hizkuntzen artean beste gauza bat egiten da: menderakuntza eta elkarren arteko borroka. Orain dela gutxi, Xabierko San Frantziskoren eguna izan dugu. Hura, Japoniara, armadarik gabe joan zen, eta oso larri ibili zen. Ameriketara joan ziren misiolariak, berriz, soldaduek lagunduta joan ziren, eta egun, lurralde haietan, espainiera mintzatzen da».

Aspaldiko kontuekin jarraituz, Baltasar Gracián aipatu zuen: «Oso gizon jakintsua omen zen, Institutuan eman ziguten haren berri. 1657ko liburu batean, batzuen eta besteen gainera topikoaren erreposoa egin zuen eta ba al dakizue zer esan zuen gailegoei buruz? Koittadu batzuk zirela». Gaineratu zuen «seduzitzearena tranpa bat» dela. «Joan daitezela espainolak Frantziara haiek

seduzi-tzera, eta ikusiko dute zer gertatzen zaien».

Gurea «literatura agonikoa» da Aristiren hitzetan: «Ari gara etengabe frogatu nahian gure literatura bizirik dagoela. Seinale txarra». Eta Estatuek beti laguntzen omen dute beren mintzairako literatura. Mahai-inguruan, moderatzaile lanean, Xosé Estévez irakasleak jardun zuen. Bai datu jakingarri bat eman zere: 153 titulu daude galegotik euskarara ekarrita.

Jose Luis Zumetaren lehen ilustrazio lana. Beste alde batetik ere bada albiste Pako Aristi: Jose Luis Zumeta margolariarekin elkarlanean, 'Scott Barberenaren bizitzako lehen pausoak' ipuina eman du argitara, zor-tzi urtetik gorako haurrei zuzendua. «Sendaketa baten istorioa» kontatu du Aristik, Scott izeneko mutikoarena, hain zuzen ere. Gaixo dago bere logelan eta handik mugitu ezin denez, irudimena erabili beharko du bere aitaren bila joateko, gelako hainbat izakiren laguntzarekin: gizontto bat, itsasontzia, itsasargi bat, kandelak, paperezko kaio bat...

Hauxe da lehenengo aldia Zumetak liburu baten ilustrazioak egiten dituen, eta beronen alaba Monikak izan du zer ikusirik; berak jarri zituen harremanetan idazlea eta margolaria. Aristik aitortu duenez, berriz, lehenengo aldia du «ipuin oniriko» bat idazten duena.

Hartsuagarekin euskararen jatorriaren bila. Juan Ignazio Hartsuaga antropologoak 'Hitzak fosil' liburua plazaratu du Hiria etxearen bidez. Liburua atera berri-berria da, ez dago Durangon, baina bai dendetan, eta azokatik kanpo mintzatu gara tolosar ikerlari honekin. «Euskararen jatorria, hara hor gai bat jende asko kilikatzen duena -esan zidan-. Ikusiko zenuen lehenengo astean Euskal Telebistako dokumentala ere. Euskararen jatorria misterioz inguratuta dago oraindik. Liburu honetan berriz, misterio hori argitzeko erabateko froga izan daitekeen datua dago, 'Senidetan harremanen hiztegia' atalean hain zuzen ere. Asiako herri indigenen artean aurkitu den ezaugarri kultural baten fosila gorde du euskarak. Eta euskararen baitan honelakorik aurkitzea modu bakarrean uler daiteke: euskara noizbait Asiatik etorri zela. Eta ikerketa genetikoek eta arkeologiak erakusten digutenez, Asiatik etorri zirenak cro-magnon ehiztariak izan ziren duela 40.000 urte inguru. Neanderthal gizakiak nagusi ziren Europa hartara iritsi ziren gure espezieko lehen cro-magnon haien artean paleo-euskaraz ziharduten batzuk bazirela ziurtatu ahal izango da, ezaugarri kultural horren egiazkotasuna frogatzen bada. Ekain eta Santimamiñeko ehiztariak paleo-euskaraz jarduten zutela frogatuta geratuko litzateke. Filologoaren esku geratzen da orain aurkikunde honi buruzko iritzia ematea».

Koldo Mitxelena hartu du gidari Hartsuagak: «Mitxelenak erakutsitako bide estuan barrena ibili naiz».

Markuletaren itzulpen lana. Ahotsenean sartu-irten bat egin eta Gerardo Markuleta eta Edorta Jimenez topatu genituen elkarrizketan. Markuletak Sergi Pamiés kataluniar kazetariaren ipuin batzuen bilduma euskaratu baitu Txalaparta etxerako. Horixe zuten mintzagaia. «Ipuinetan, lehenengo esaldia oso garrantzitsua da, eta Pamiésék badaki hori. Hona adibide bat: 'Hil behar izan nuen maite nindutela jakiteko», esan zuen Oñatiko olerkari itzultzaileak.

Gurasoentzako lezioa Haur Literaturako Aretoan. Haur Literaturako Aretoa atzo jarri zuten martxan Elkartegian. Gaur ekimen berezia izango da bertan, goizez eta arratsalde (10:30etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara). Izenburu hau daukan tailerra garatuko dute: 'Zertan jolasten dira gure seme-alabak eta zergatik jolastu beharko genuke beraiekin? Tailerra 8-14 urte bitarteko gaztetxoei dago zuzendurik, eta heldu bakoitzeko haur bakarrak parte har dezake.

«Gaztetxoen kasuan, bideojokoen kontsumo kritikoa bultzatzea dugu helburu eta gurasoen kasuan, berriz, jolasa bera (zer erakusten duen, zer gaitasun garatzen dituen) eta narrazio, kontzeptu eta istorio interesgarriak eskain ditzaketan izenburuak ezagutaraztea», adierazi dute.

Gidaria Aitor Uriguen Torvisco pedagogoak izango da, eta irakasleak, berriz, Unai Sanchez Santos informatikaria eta Izaskun Erkizia pedagogoak.



Pakop Aristi, Xosé Estévez eta Darío Xohan Cabana

BERRIA, 2011-12-6

2011-12-06

Durangoko 46. Euskal Disko eta Liburu Azoka

'Galegoz eta euskaraz, Galizia eta Euskal Herriaz' berriketaldian, literaturak hizkuntza bietan duen egoeraz hausnarketa egin dute Pako Aristik eta Darío Xohan Cabana idazle galegoak.

Goretti Rodriguez Durango

Pako Aristi, Xose Estevez eta Darío Xohan Cabana. / JON URBE / ARGAZKI PRESS

Galegoz mintzatu ziren atzo Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokako aretoan batutako idazleak. «Taberna girokoa da nire galegoa» galegoz esanez hasi zuen bere berriketaldia Pako Aristik, eta bukaera arte kultura gonbidatuaren hizkuntzan hizketan aritu zen Darío Xohan Cabana idazle galiziarrarekin. *Galegoz eta euskaraz, Galizia eta Euskal Herriaz?* gaia jorratu zuten. Euskal Herrian bizi den Xose Estevez idazle galiziarra izan zuten zirikatzaile. «Nire aberriak atsekabea

sortzen didanean, hauteskundeetan, adibidez, Euskal Herriak poztasuna ematen dit», azaldu zuen. Galegoz egindako 153 lan euskarara itzuli direla azpimarratu zuen, eta hori guztia Pako Aristi eta Karmelo Landari esker izan dela gogoratu zuen.

Oreka gabeko elebitasuna

Hizkuntza gutxituetan lan egiten duten idazleak batu beharraz hitz egin zuen Dario Xohanek. «Gure literaturak ezberdinak dira, kasu nazional bakoitzari berezko zaiona, baina estaturik gabeko idazleok indarrak batu beharrean gaude arriskuan diren hizkuntzen idazleak garelako. Barrikadaren alde berean gaude».

Euskal Herrian dugun elebitasun desorekatuaren gainean jardun zuen Pako Aristik. «Hizkuntza baten garapena jasotzen duen bultzadaren arabera da». Norvegia jarri zuen adibidetzat: «Estatu serioek diru laguntzak ematen dituzte euren herriko literatura garatu dadin». Espainiako Estatutik galegoa eta euskararen kontra neurri zapaltzaileak baino ez jasotzea salatu zuen. «Eusko Jaurlaritzak sei milioi euroko diru laguntza eman du Basque Culinary Center delakoa sortzeko. Bertako kide izateko euskara edo ingelesa jakitea eskatzen da, lotsagarria benetan!». Hizkuntza gutxituen egoera «tamalgarriaz» hitz eginez hizlariak egunotan irrati batean egindako elkarrizketa aipatu zuten. «Zergatik galdetu behar digute zer dela eta aukeratu dugun euskaraz edo galegoz idaztea? Denok aukeratzen dugu idazteko hizkuntza, eta zergatik ez diote galdetzen Euskal Herrian bizi den idazle bati zer dela eta idazten duen gaztelaniaz?», galde egin zuen Aristik. Xohanek gaineratu zuen «tamalez» galiziar askok nahiago dutela bigarren mailako espainiar izan lehen mailako galiziar baino.

Hizlariak aipatu zuten literatura bakoitza sortu eta garatu egiten dela egoera historiko, politiko, ekonomiko jakin eta zehatzetan. Euskal literatura eta galiziarren osasuna ona dela gaineratu zuten, hizkuntzaren egoera bestelakoa bada ere. Xohanek azpimarratu zuen literatura galegoa nazio-tresna gisa sortu zela, eta baita nazio-fabrika modura ere. «Jakin badakit Rosalia [De Castro] eta [Eduardo] Pondalen aurretik ere egon zela beste ezer. Zorte onekoak izan gara, bazterrean utzi den Europako txoko pobre honetan, geure literatura modernoaren hastapenetan bi poeta jeinu izan ditugulako. Rosalia eta Pondal, garai hartan Iberiar penintsulan egon zen gauzarik modernoena izan ziren, Portugal barne».

Xunta de Galicia

A iniciativa materializouse co patrocinio da Agadic e mediante a colaboración aberta entre a organización da azoka e as asociacións galegas integradas en Culturgal

Vintecinco profesionais e artistas representan

a Galicia como cultura convidada na feira do libro e do disco vasco de Durango

Juan Carlos F. Fasero intervén mañá na inauguración da edición número 46 do emblemático encontro biscaíño, na que tamén participará Antón Reixa

A selección cultural realizada compón un amplo abano de propostas no que están presentes a literatura, a escena, a música, o audiovisual e as novas tecnoloxías

O traballo dun total de 25 profesionais e artistas galegos de distintas áreas de creación representará a Galicia como cultura convidada de honor na Feira do Libro e do Disco Vasco de Durango, que se desenvolve na localidade biscaíña do 4 ao 8 de decembro. A Axencia Galega das Industrias Culturais (Agadic) da Consellería de Cultura e Turismo patrocina a través da colaboración aberta mediante a asociación Culturgal a presenza galega na edición número 46 deste emblemático certame, que mañá se inaugura coa intervención de Juan Carlos F. Fasero, director da Agadic.

O acto de apertura da Durango Azoka, encontro decano e referencial na difusión cultural, contará coa asistencia de Nerea Mujika, presidenta de Gerediaga Elkarte (entidade organizadora do certame); Aitziber Irigoras, alcalde de Durango; Josune Ariztondo, deputada de Cultura da Deputación Foral e Blanca Urgell, conselleira de Cultura do Goberno Vasco. Por parte de Galicia, Juan Carlos F. Fasero asumirá a representación institucional, en tanto que a profesional a exercerá o polifacético Antón Reixa, presidente da produtora Filmanova.

Na selección de proxectos galegos que se presentarán diante do público de Durango primaron as iniciativas que colaboran activamente con axentes culturais vascos, tanto desde o punto de vista da creación colectiva como da relación entre empresas. O resultado é un amplo abano de propostas no que están presentes a literatura, a escena, a música, o audiovisual e as novas tecnoloxías.

Tamén para nenos

